



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko maiatzaren 22koa. Horren bidez amaiera ematen zaio bi elkarte ekologistek sustatutako kexa-espeditari. Bertan, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailari eskatutako ingurumeneko informazioa ukatu zaiela salatzen dute.**

### Aurrekariak

1. Bi elkarte ekologistek -XX eta YY- Arartekora jo zuten ingurumen informazioa eskuratzeko eskaerari Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Sailak emandako erantzuna salatze aldera. Zehazki, Gorlizko hondartza babesteko eta zaintzeko plan berezia idazteko egindako agiriak eta plan bereziaren ingurumen eragineko ikerketa eskuratu nahi zituzten. Erreklamazioan adierazi dutenaren arabera, eskatutako agiriak foru administrazio horrek eskatuta burutu dira eta une horretan haren esku zeuden.

YY elkartearen kasuan, bi agiriak euskarri elektronikoan eskuratzeko eskaera 2011ko otsailaren 14an egin zen. Ingurumeneko Sailak eskaera hori ukatu zuen martxoaren 15eko 563/2011 Foru Aginduaren bidez. Ebazpenak eskaera ukatu zuen eskatutako ingurumeneko informazioa garatzen ari zen materialari edo amaitu gabe zeuden agiriei buruzkoa zela uste izanagatik. Horren harira, ingurumenaren alorrean informazioa edukitzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideari buruzko uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 13.1.d) artikuluan jasotako aurreikuspenak aipatu zituzten.

XX elkarteak, bere aldetik, dokumentazio bera eskatu zuen 2011ko ekainaren 15ean. Foru sailak emandako erantzunean, burututako agiriak Gorlizko Udalera bidali zirela jakinarazi zien, hori baitzen hirigintza izapidean eskumena zuen organoa. Aldundiaren ustez zegozkion hirigintza eta ingurumen izapideak burutzeke zeuden. Horregatik, erabaki horren oinarritzat bi agiriak behin betikoak ez zirela adierazi zuen, izan ere, hirigintza plangintzaren ustezko idazkiaren material adierazgarritzat jotzen zituzten. Gauzak horrela, ingurumeneko foru sailak eskaera Gorlizko Udalera bidali zutela jakinarazi zien, zegozkion izapidea bidera zezaten.

2. Behin erreklamazio horren izapidea onartuta, Ingurumeneko Foru Saileko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin harremanetan jarri ginen,



Erreferentzia: 1657/2011/23

erreklamazioaren zehaztapenak eta bigarren eskaera horri emandako erantzuna zehazteko.

Zerbitzu horretan Gorlizko Udalak emandako baiezko erantzunaren berri eman ziguten. Horren bidez, 2011ko irailaren 22an, eskatutako agiriak eskuratzeko baimena eman zen, baina ez euskarri elektronikoan, fotokopistegia batean eskainita baizik.

3. Erreklamazioa aurkeztu duten elkarteei informazio horren berri eman ostean, haiek ere Gorlizko Udalak agiriak eskuratzeko emandako aukera jakinarazi digute. Edonola ere, elkarteek azpimarratu dute ez daudela ados foru sail horrek emandako erantzunarekin; izan ere, eskaera foru administrazio horri berariaz zuzendu zioten, bertan baitzegoen ingurumen arloko informazio hori eta, gainera, formatu digitalean eskatu zutela azpimarratzen zuten. Hori dela-eta, aldundiak euren eskaerari eskainitako erantzunarekin ados ez zeudela azpimarratzen zuten eta euren eskubidea erabiltzeko izan zuten atzerapena adierazten zuten.
4. Erreklamazio honi dagokion izapidea emate aldera, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Sailari elkarte kexagileek foru aldundi horren eskutan dauden agiriak eskuratzeko eskubideari buruzko informazioa eskatzen diogu.

Foru sail horrek elkarteei emandako erantzuna justifikatzen zuen txostena bidali zigun. Txostenaren arabera, eskatutako agiriak Gortzko hondartzaren antolamenduaren inguruan Bizkaiko Batzar Nagusietan aurkeztutako ez-arauzko proposamen batetik sortutako konpromiso baten parte ziren. Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritzak bi agiriak finantzatzeko eta burutzeko konpromisoa hartu zuen eta hirigintzako eta ingurumeneko izapidea Gortzko Udalaren aurrean sustatu zuen. Ondorio horretarako, Ingurumeneko Sailak kanpoko enpresa bati eskatu zion idazketa, behin idatzi ondoren, Gortzko Udalera bidaltzeko. Agiria organo eskudunaren izapidearen mende eta, beraz, berrikuspenaren mende zegoen plan berezi baten parte zen. Hori zela-eta, amaitu gabe zegoen agiri baten aurrean geundela uste zuen. Nolanahi ere, lehen foru erantzunak azaltzen zuen agiri horiek udalera bidali zirela, eskaera hori bidera zezakeen aginpide publiko gisa. Bigarren eskaerari dagokionez, agirien amaitu gabeko izaeraren irizpidea mantendu zen eta eskaera zuzenean udalari bidali zitzaion. Udal administrazio hori izan zen, espedientean azaltzen denaren arabera, agiri horien fotokopiak eskuratzeko baimena eman zuena.





Erreferentzia: 1657/2011/23

Informazio hau ikusita eta kexa egin dutenek alegatutako gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, eta edukiak aztertu ondoren, hona hemen ondoko

### Gogoetak

1. Elkarte hauek helarazten diguten gaiak herri administrazioen esku dagoen ingurumeneko informazioa eskuratzeko eskubidearen erabilerari egiten dio erreferentzia.

Erakunde honek behin baino gehiagotan azpimarratu du eskuratzeko eskubide horrek garrantzi handia duela beste eskubide batzuen erabileran, hala nola: herritarrek parte hartzeko eskubidea edo administrazio onerako eskubidea. Zentzu horretan, Ararteko erakundeak, Eusko Legebiltzarrari 2010ean bidalitako txostenean, *“dokumentazio publikoaren gardentasuna eta dokumentazio hori eskuratzeko eskubideari buruzko”* gomendio orokor bat gaineratu zuen. *Bereziki, ingurumenari buruzko informazioari dagokionez*<sup>1</sup>.

Ingurumeneko informazioa eskuratzeko eskubidea gure antolamendu juridikoan jasota dago, zehazki, Ingurumenari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean.

Horren inguruan azpimarratu behar dugu, araudi horrek eskubide horren erabilera osatu behar duten hainbat printzipio gaineratzen dituela, hala nola, azkartasuna, asistentzia, gardentasuna eta eskubide hori eskuratzeko mugen interpretazio murriztailea.

Kasu honetan, erreklamazioak eskubide horren erabileraren hiru kontu zalantzan jartzen ditu. Horrela bada, dagokionari ingurumeneko informazioa eskaintzeko beharra, eskubide hori noiz erabil daitekeen eta eskatzaileari nola edo zein euskarritan bidali behar zaion azaltzen zaio.

---

<sup>1</sup> [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_2090\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_2090_3.pdf)



Erreferentzia: 1657/2011/23

- 2.- Lehenengo kontuari dagokionez, hau da, ingurumeneko informazioa eskaintzeko beharrari dagokionez, 27/2006 Legearen 10. artikuluan jasota dagoen moduan, eskumeneko agintari publikoari dagokio. Agindu horrek zehazki zera azaltzen du: *"Ingurumeneko informazioaren eskaera bat ebazteko agintari publiko eskuduntzat joko da eskatutako informazioa bere esku duen hori, bai zuzenean, bai haren izenean beste subjektuek baldin badute."*

Administrazioak eskatutako informazioa ez daukanean, eskaera informazioa duen administrazioari bidali beharko dio eta eskatzaileari horren berri eman beharko dio.

Zentzu horretan, zehaztu behar dugu, foru aldundiak eskatutako agiria burutzeko izan dituen arrazoiak alde batera utzita, bidalitako informazioan bermatu dela ingurumeneko bi agiri horiek foru organo horren eskuetan zeudela. Beraz, 27/2006 Legean xedatutakoaren arabera, foru sail hori da informazioa eskaintzeko eskumena duen aginpidea.

- 3.- Bestalde, aldundiak ingurumeneko informazioa eskuratzeko ukapena bideratzeko alegatutako arrazoia azertu beharko genuke. Aldundiak azaldu du amaitu gabe eta berrikuspenaren mende dauden agirien aurrean gaudela eta agiri horiek adierazteko eskumena duen organoak azertu behar dituela, kasu honetan, Gorkizko Udalak.

Ingurumeneko informazioa ukatzeko arrazoiak 27/2006 Legearen 13. artikuluan tasatuta daude eta, artikulua horrek ezartzen duen moduan, modu murriztailean interpretatu behar dira ingurumeneko informazioa eskaintzeko beharrari dagokionez. Kontu horren inguruan 13.1 d) artikulua amaitu gabe dauden agiriak edo datuak definitzen ditu:

*"Por estos últimos se entenderán aquellos sobre los que la autoridad pública esté trabajando activamente. Si la denegación se basa en este motivo, la autoridad pública competente deberá mencionar en la denegación la autoridad que está preparando el material e informar al solicitante acerca del tiempo previsto para terminar su elaboración."*

Gure gomendio orokorrean, amaitu gabe dauden agiri gisa garapen prozesuan dauden agiri zehaztat aipatzen genituen, administrazioa modu aktiboan lantzen ari den dokumentu konkretuak. Garrantzitsua da aipatzea ez direla



Erreferentzia: 1657/2011/23

izapidetzen ari diren administrazio espedienteak, baizik eta lantzen ari diren dokumentuak edo txostenak. Kasu horretan, egokia da aipatzea Auzitegi Gorenaren 2003ko urriaren 28ko epaia —RJ 2003\7865—. Horren bidez, bidegabetzat jo zen baliabide natural batzuk antolatzeko izapidetzen ari zen plan baten inguruko informazioa eskuratzeko eskabidea ukatzea. Epaia horren arabera, jardun hori egiazkoa da eta existitzen da, eta ez da dokumentu amaitugabe bat edo oraindik egin gabeko proposamen bat.

Bestalde, 2011ko irailaren 29ko Auzitegi Nagusiaren epaiak -JUR 2011\354383- azaltzen duenez “ezin dira nahastu -administrazio helegileak egin nahi duen moduan- “amaitu gabe dagoen txostena” -hau da, zirriborro fasean dagoena, oraindik ere egilearen sinadurarik edo dagokion unitate teknikoko buruaren aginduzko adostasunik ez duena - “amaitu gabe dagoen espediente” batekin, izan ere, azken horretan, ondoz ondoko txostenak - guztiak “amaituta”- agertzen dira eta horiei mota ezberdineko datu edo emaitza berriak gaineratu ahalko zaizkie administrazio prozeduraren fase ezberdinek aurrera egiten duten heinean.”

Hala, 13.1.d) artikulua burutzen ari den materialari buruzko eskaera bat ukatzeko aukera eskaintzen du, betiere, agintea agirian modu aktiboan lan egiten ari bada. Gure ustez, horrek ez dauka irekitako prozedurekin edo espedienteekin zerikusirik, hala nola, plan berezi baten eta haren ingurumenaren ebaluazioaren izapidetzearen kasua.

Agiri horiek, aldundiaren esku daudenak, aldundiak hala eskatuta idatzi dira hirigintzako antolamendua bultzatzeko helburuarekin. Izan ere, agiri horiek, amaitu ondoren, Gorkizko Udalak hirigintza espediente bat aldi baterako egiteko oinarri izango dira. Hala eta guztiz ere, hori ez da eragozpenik aldundiak burututako eta finantzatutako agiriak, berez, amaitutzat jotzeko, ez baitzegoen inolako garapen aktiborik.

Ingurumeneko informazioa eskuratzeko eskubideak ez dago lotuta aldundiak agiri horiek egiteko izan dituen arrazoiekin ezta ondoren hori izapidetzea dagokionarekin. Eskubide horrek administrazio batean dagoen ingurumeneko informazio oro eskuratzeko aukera bermatzen du, jakinak diren murrizketekin, eta interesdunei ezin zaie horiek ezagutzeko aukera kendu eskumen kontuengatik edo informazio horren titular ez izateagatik.



Erreferentzia: 1657/2011/23

Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziak azaltzen du jendeak ingurumeneko informazioa gehiago eskuratzen bada eta informazio hori hedatzen bada ingurumen arloan kontzientziazio handiagoa dagoela, ikuspuntuen truke askea gertatzen dela, jendearen parte-hartzea eraginkorragoa dela ingurumeneko erabakiak hartzean eta, azken finean, ingurumena hobetzen dela.

Beraz, aldundiak agiri horiek amaitu gabe daudela esatean egiten duen interpretazioa, gure ustez, ez dator bat legearen kontzeptuarekin eta jurisprudentziak garatutako interpretazioarekin.

- 4.- Azkenik, informazio eskaeran berriaz eskatzen zen dokumentuak formatu elektronikoan bidaltzeko. 27/2006 Legearen 11. artikulua ezartzen du eskatzaileak hobesten duen formatua errespetatu behar dela, hori galarazten duen inguruabarrik ezean. Posible ez izatekotan, modu arrazoituan justifikatu beharko da.

Kontu horren inguruan bi gauza gogorarazi behar ditugu. Administrazioek euren eskuetan dauden edo euren izenean jarduten duten beste subjektuek dituzten bitartekoak izan behar dituzte ingurumeneko informazioa erreproduzitzeko edo eskuratzeko errazak diren euskarrietan eskuratu ahal izateko, telekomunikazio informatikoen bidez edo beste bitarteko elektronikoak erabiliz. Era berean, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6. artikulua xedatzen duenari jarraiki, administrazioek espediente elektronikoa eskuratzeko aukera ematen duten baliabideak eduki behar dituzte.

- 5.- Azken finean, azaldutako kasuan, elkarteek ezin izan zuten eskuratu foru aldundiari eskatutako ingurumeneko informazioa, haren eskuetan egon arren. Informazioa eskuratzeko ukapena zela-eta, eta eskaera beste administrazio batera bidali zenez, ezin izan zuten informazio hori izan araudian ezarritako hilabeteko epean. Azken eskaeran udalak agiriak eskaini zizkien, eskatutako euskarrian ez bazen ere.





Erreferentzia: 1657/2011/23

Kexan eta administrazio horrek igorritako argibideetan dauden datuak eta egindako gogoetak ikusita, honako ondorioak helarazi behar dizkizugu:

### Ondorioak

Ararteko erakundetik informazio publikoa azkar, erraz eta interesdunentzako ahalik eta koste txikienarekin eskuratzeko eskubideak duen garrantzia azpimarratzen dugu.

Jendeak ingurumeneko informazioa gehiago eskuratzen badu ingurumen arloan kontzientziario handiagoa dago, ikuspuntuaren truke askea gertatzen da, jendearen parte-hartzea eraginkorragoa da ingurumeneko erabakiak hartzean eta, azken finean, ingurumena hobetzen da. Eskuratzeko atzerapena edo zailtasunak ukapenaren antzeko neurriak dira, izan ere, parte hartzeko eskubideak behar bezala erabiltzeko, ezinbestekoa da agiriak goiz izatea.

Eskuratzeko ukatzeko arrazoiak araudiak azaltzen dituen arrazoi zehatzetara mugatu behar dira, interes publikoan edo hirugarrenen eskubideetan oinarrituta daudenak.

Zentzu horretan, agiriak bere esku dituen administrazioak du informazioa eskaintzeko beharra. Legeriak ez du eskatzen administrazio hori informazio horren titular izatea edo administrazio bultzadarako eskumena izatea.

Ukapena amaitu gabe dauden datuak edo agiriak direlako bideratzen bada, aginpidea burutzapen prozesua modu aktiboan duen kasuetara mugatu behar da.

Era berean, herri administrazioek bitartekoak eskuratu behar dituzte euren esku dagoen informazioa erreproduzitzeko eta eskuratzeko errazak diren euskarri elektronikoetan eskuratzeko aukera eskaintzeko.